

6. BEZEROEKIKO HARREMANA

KLIKASI plataformak bezeroekin harreman hurbila, eraginkorra eta egokitua mantentzea du helburu, erabiltzaile mota desberdinen beharrei erantzuteko. Horretarako, laguntza pertsonala, sistema automatizatuak eta baliabide osagarriak uztartzen ditu.

KLIKASIk telefono bidezko harreman edo laguntza zuzena eskainiko die ikastetxeei, irakasleei eta behar konplexuagoak dituzten erabiltzaileei. Laguntza pertsonalizatu honen bidez, plataformaren erabilerarekin, kontuaren kudeaketarekin edo arazo teknikoekin lotutako zalantzak modu argi eta fidagarrian konponduko dira, bezeroekiko konfiantza eta harreman estua indartuz.

Plataformak chat automatiko bat izango du, bai webgunean bai aplikazioan, zalantza puntual eta azkarrak konpontzeko. Sistema honek ohiko diren galderen erantzunak, erabilera-gidak eta arazo sinpleen konponbideak berehala eskaintzen ditu, erabiltzailearen denbora aurreztuz eta KLIKASIn erabilera erraztuz.

Horrez gain, KLIKASIk ohiko galderen atala, “FAQ” antzerakoa, tutorial laburrak eta bideo azalpenak eskainiko ditu, erabiltzaileek plataforma modu autonomoan ikas dezaten. Era berean, erabiltzaileen feedback-a jasotzeko kanal bat egongo da, iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak biltzeko, plataformaren etengabeko hobekuntza eta bezeroen gogobetetasuna bermatzeko.